


# Denbora.



## 1

### Puntuak lotu



Zenbakien ordena egokiari jarraitu eta zenbaki guztiak lotzen badituzu, ezkutuan dagoen irudia ikusiko duzu.

Lotu zenbakiak eta asmatu!

## 2

### Kopiatu koadroz koadro


Txominek, txirula jotzen duenez, bere txirularen marrazkia egin digu. Txominen marrazkia eredutzat hartuta, ea txirula berdina beheko laukietan marrazteko gai zaren.



# -pasa

## 3 Itzalak

Jonek txapel polita erosi zuen bere herriko jaietan, ezta? Ongi begiratu, eta ea txapelari dagokion itzala zein den asmatzen duzun.



## 4 Aurkitu irudian

Hauexek dira Xabik poltsikoan gordeta zeuzkan giltza guztiak. Arretaz begiratzen baduzu, hiru giltza errepikatzen direla ohartuko zara. Zein dira errepikaturik dauden giltzak?




Erantzunak: 1. P hizkia 3. (E).

## esku lana

### Mamua

Material sinpleekin eta irudimen pixka batekin irudi politak sor ditzakezu. Mamu bat baino gehiago egiten badituzu, mamu familia bat osa dezakezu. Ekin lanari!




### Beharrezko materiala

- Plastilina; nahi duzun kolorekoa aukera dezakezu.
- Harri kartoia.
- Kola.
- Masilla.
- Pintura urdina, beltza eta zuria.
- Pintzelak.
- Guraizeak.


### Egiteko modua



- 1 Aukeratu gустuko koloreko pastilina, eta egin nahi dugun mamuaren forma eman.



- 2 Ontzi batean ura eta kola nahastu. Harri kartoia zatiak moztu, eta uraren eta kolaren nahasketa egin dugun ontzian sartu. Ongi bustiak daudenean, zatiak hartu eta pastilnazko irudiari itsatsi.



- 3 Harri kartoia ongi lehortu denean, atera pastilnazko moldetik. Guraizeen laguntzaz, mamuaren beheko alde berdinu edo biribildu.



- 4 Harri kartoia masilla geruza bat ezarri. Lehortu ondoren, pintzela eta margoa erabilia, margotu urdin argiz.



- 5 Mamuari begiak, ahoa, bekainak, katea eta katetik zintzilik dagoen bola marrazteko, erabili pintura beltza eta zuria.